



# MAIATZAREN LEHENA ESKUALDETIK KANPO

Tolosaldeko LABk Beasainera egin zuen deialdia eta ELAk Bilbora; jende ugari elkartu zen manifestazioetan » 3

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Igandea  
2010-05-02**

VIII. URTEA 1990. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Larren irekierak jende eta abere ugari elkartu zituen Larraitzen. ESTI EZEIZA

## LARRAITZEN URTEROKO LARREEN IREKIERA EKITALDIA EGIN DUTE

**ABALTZISKETA** Jaiaren ondoren 20.000 abere inguru ibiliko dira Aralarko parajeetan; hauetatik 18.500 ardiak izango dira 6



Asteasuko Elizmendi auzoan Simonen jaitsierarekin hasi dira jaiak. ASIER IMAZ

## Asteasuko Elizmendi auzoa eta Orexa jaietan aurkitzen dira

**EKITALDIAK** Orexan gaztelu puzgarriak jarriko dituzte; Elizmendin erromeria egongo da gaur 7



**TOLOSALDEA**

GOIMAILAKO L.H.  
INSTITUTUA



# “ATE IREKIEN EGUNA”

**MAIATZAK 4, ASTEARTEA • 17:00etatik 21:00etara**

Ikasle, guraso, langile, enpresa eta  
interesatu guztiei zuzendua.

Ikastetxeko instalazioak eta  
eskaintza ezagutzeko bisita gidatua.

943 65 11 47 • [www.tolosaldea.com](http://www.tolosaldea.com)

Mugikorrean informazio gehiago  
Mezu bat bidali: **TOLOSALDEA** idatziz 5533ra

## Mendia



### » Uzturretik

Iratxe Etxebeite

Uztaren jainkosa omen da Annapurna. Mendia baino gehiago da haren altzoan bizi direnzentzat, haren agintea sentitzen duten herrirentzat, piramide zuria- ren magaletan. Iluntzean oxigeno gabeko aire finak kolore morea

hartzen du, eta minutu bat geroago zeru beltzetik lainoek desagerrazten dute bista guztia.

Elur-oldeek eta luiziek sinfonia beldurgarri ederren oihartzuna dakarte haitzezko horma bertikalen artean. Mendigoizalearen borondatea sendoa izan arren, Annapurnak beti gogorarazten dio ez dela ezer, baimena behar duela tontorrera iristeko, eta baimena gero beheraino bizirik jaitsi ahal izateko.

Annapurnan munduko azken biztanle sentitzen omen da mendizalea, harrokeriaren aurkako txertoa da, eta edertasun txundigarriarekin esaten dizu: benetan igo nahi zazu? Ez al duzu nahikoa nire

itxura maiestatikoa begiratzearrekin?

Egunotan Edurne Pasaban eta Oh Eun Sun-en arteko ika-mikarekin entreteniturik genbiltzan bitartean iritsi zaigu notizia. Tolo Calafat Mallorkako mendigoizalea uztaren jainkosaren soro zurietan, 7.500 metrora, ahoa elurrez beterik hil da. Seme-alabekin gogoratu zen, emaztearekin, heriotza hotza izan aurretik. Diotenez, oinaze izugarriaren ostein musu goxo bat, eta kontzientzia eza, etortzen zaizkio bati.

Eta bat-batean konturatu gara mendizalea ez dela nor arinago iritsi, ez dela errekorren kirola edo enpresen marketina. Mendikoa da

naturak agintzen duela gogorarazten digun diziplina. Horregatik errespetua eskatzen segituko

dute, mundua mundu den artean, zortzi mila metrotik gorako jainkosek.



Annapurna, 'Uztaren jainkosa'. RTVE AL FILO DE LO IMPOSIBLE

## G Gutunak

### Maroko errudun Espainia arduradun

Duela urte eta erdi, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) Christopher Ross estatubatuarra Mendebaldeko Saharako gatazkarako ordezkari berezi izendatu zuenean, Marokoko gobernuaren eta fronte politarioaren artean hainbat hilabetetan etenda zeuden negoziazioak desblokeatuko zirenean itxaropena piztu zen. Zoritxarrez, azken hilabete hauetan, itxaropen izpi horiek Marokoko gobernuaren jarrera oldarkor eta bortxazkoaren eraginez, bertan behera gelditu dira Nazioarteko herrialde boteretsuenen isiltasun eta konplizitatearen babespean.

Babesgabeke biztanleak pairatzen dituzten erasoak, atxilotaketak, torturak, bortxaketak, desagertaketak edo deportazioak helburu bakarra dute: Mendebaldeko Saharako biztanleen borondatearen aurka, Marokoko gobernuaren alde bakarreko autonomia plana in-

posatu eta saharar herriaren aurkako genozidioa bururaino eramatea. Bide batez, NBEak hainbat eta hainbat erresoluziotan onartutako Mendebaldeko Sahararen Autodeterminaziorako eta Independentziarako eskubidea behin betiko lurperatuaz.

Guzti honen adierazgarri dugu Marokok atxiloturik dauzkan giza eskubideen aldeko sei ekintzailek burutu duten gose greba.

Tolosaldea Sahararekin elkartetik, egungo egoera ikusirik, Saharako lurraldearen administratzaile izaten jarraitzen duen espainiar estatutaren erantzunkizuna azpimarratu nahi dugu. Espainiar estatuko gobernuari Europar Batasuneko (EB) lehendakaritza bere gain hartu duen honetan, honek ematen dion legimitateaz baliaturik, orain arte mantendu duen jarrera aldatu eta demokraziaren bidetik konponbidean jarriko luke ten pausoak ematea exigitzen diogu:

1.- Marokoko gobernuak nazio-

arteko legediari muzin eginez Mendebaldeko Saharako proposaturiko autonomia planari eskeinitako babesa amaitzea.

2.- Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan etengabe gertatzen diren manifestazio eskubidearen zantpaketa, atxilotaketak, torturak eta tratu txarrak, bortxaketak, desagertaketak, deportazioak eta orokorrean giza eskubideen aurkako erasoak ez bairik gabeko salaketa eta gaitzespen bortitzena adieraztea.

3.- Giza eskubideen arloko hainbat gobernu kanpoko erakundeen txostenak haintzat hartzea ([www.hrw.org/en/node/79248](http://www.hrw.org/en/node/79248)).

4.- Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan Marokoko agintari buruturiko gerra krimenak, dagokien instantzietarabideratzea eta Madrileko (Espainia) Auzitegi Nazionalen abiatutako ikerketebide ematea, berauek isildu eta estali beharrean.

5.- Mendebaldeko Saharako Erreferendunaren Nazio Batuen

Erakundearen Misioa (MINURSO) giza nahiz material baliabidez laguntzea, eta batez ere, giza eskubideen arloko eskuduntzak izan ditzan Nazio batuen erakundearen (NBE) aurrean erresoluzio bat aurkeztea, Nazio Batuen erakundeak (NBE) munduan zehar hedaturik dauzkan misioen artean giza eskubideen arloa bazterten duen misio bakarra izateari utzi diezaiola.

6.- Nazioarteko zuzenbidean jasotako jurisprudentzian oinarrituz, Mendebaldeko Saharako deskolonizazio prozesua bultzatzea.

7.- Europar Batasuneko (EB) gainontzeko estatuekin batera, Saharako Errepublikak Arabiar Demokratikoaren (SEAD) autodeterminaziorako eta independentziarako eskubidea aitortzea eta sustatzea.

8.- Mendebaldeko Sahara zati-tzen duen 2600 kilometro luze dituen lotsaren harresiaren eraispina burutzeko giza eta material baliabideak eskaintzea.

9.- Espainiar estatuko diputatuen kongresuak ebazitako behingoz betetzea eta gerran aurkitzen diren estatuei, Marokokoa kasu, armak saltzea debekatzen duen ebazpena betetzea. Hau da, bere legedia betetzea.

10.- Mendebaldeko Saharako baliabide naturalen lege kanpoko ustiatzeari uko egitea eta zehazki, saharar arrantza bankuetan arrantza egiteko Europar Batasuneko (EB) eta Marokoko estatutaren arteko ituna berritzeari uko egitea ([www.wsrw.org](http://www.wsrw.org)).

11.- Mendebaldeko Saharako biztanleen interesen aurka, bertako baliabide naturalak explotatzen duten espainiar estatuko enpresak zigortzea, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) ebazitako erresoluzioak sahiestu eta urratzeagatik.

Maroko Saharatik at. Autodeterminazioa eta independentzia Mendebaldeko Sahararentzat.  
**Ion Diaz Azkolain.** Tolosaldea Sahararekin elkarteko lehendakaria.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@tolosaldekohitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldekohitza.info) / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK  
SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHORZTETXEA  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com) Tfno. 943 67 00 40

ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900

# Aldaketa politikoa eta soziala egiteko konpromisoa eskatu du LABek

## Maiatzaren 1a »

Tolosaldeko eta Goierriko LABek Beasaindik Ordiziara manifestazioa egin zuen atzo.

### ESTITXU IMAZ/GOIERRIKO HITZA

LAB sindikatuak Euskal Herriak aldaketa politikoa eta soziala behar dituela adierazi du eta aldaketa horiek emateko konpromisoa eskatu die alderdi politikoei eta eragile sozialei. Langileen Nazioarteko Egunaren harira, sindikatu abertzaleak atzo eguerdian Beasaindik Ordiziara antolatutako manifestazioan egin zituen adierazpen horiek, Ainhoa Etxaide LABeko idazkari nagusiak. Konpromisoa eskatzeaz gain, LAB konpromiso berriak hartzeko eta ekimen berriak bultzatzeko prest dagoela aipatu zuen. Manifestazioan dozenaka lagunek parte hartu zuten eta Beasaindik Ordiziara bidea egin ondoren, Ordiziako plazan bukatu zuten ibilbidea.

Manifestazioa 12:30erako zegoen deituta. Mobilizazioari hasiera eman aurretik, hainbat adierazpen egin zituen Ainhoa Etxaidek prentsaren aurrean.

### Negoiazio kolektiboa hizpide

LABen arabera «aurtengo Maiatzaren Lehena testuinguru berezi batek markatuta dator: batetik krisiaren erdian kokatuta gaude, murriketa, erreforma eta botere ekonomikoaren eraso artean. Besteetik, aldaketa politikoi bultzada emateko fasean gaude, bete bete-an». Horregatik, lehenik eta behin egoeraz daukaten kezka adierazi nahi izan zuen LABeko idazkari nagusiak. «Azken langabezi datuek erakutsi dute egoera okerrera doala eta horren aurrean hartu nahi dituzten sakoneko neurrien inguruan kezka eta salaketa adierazi behar dugu. Ez gara lan eskubidea eta pentsio eskubidea murritzetez soilik hizketan ari. Bi horiez gain, orain langileoi gure eskubideen defentsan aurrera egiteko ezinbestekoa eta funtsezkoa dugun negoziazio kolektiboa be-



Dozenaka lagunek parte hartu zuen LAB sindikatuak Beasaindik Ordiziara antolatutako manifestazioan. ESTITXU IMAZ

zalako bitartekoa ere kentzeaz edo bederen baldintzatzeaz hitz egiten arigara».

Krisi honek «garbi» erakusten du Etxaideren ustez, langileen egoerari konponbidea emateko «bidezidorrik ez dagoela eta sakoneko aldaketa behar dela. Hau da, eredu ekonomiko berri baterantz aurrera egiteko aukera emango digun aldaketa behar dugu».

### Urrats «berriak eta eraginkorrak»

Sindikatu abertzaleak bi gauza eskatzen ditu: «berrehalako neurriak» hartu daitezela gaurko politikak aldatzeko eta bigarrena, «sakoneko aldaketa» bultzatu ahal izateko, aldaketa politikoa ere urrats «berriak eta eraginkorrak» eman daitezela. Etxaideren esanetan «Krisia ez da azken bizpahiru urteetako kontua, baizik eta azken 15 urteetako erabaki politikoez eragin dute. Erabaki politikoen ondorio denez, krisia gainditzeko aldaketa politikoa behar da. Euskal Herriak eskubidea izan behar du bere etorkizun ekonomiko eta soziala erabakitzeko eta beraz, hemen langileok ere ekimen politikoa behar ditugu, aldaketa hori bultzatuko dituen ekimen politi-

koak, hain zuzen». Ezker abertzalearen azken urratsak gorai patu zituen LABeko idazkari nagusiak. «Euskal Herriak aldaketa politikoa errealitate bat izateko iniziatibak martxan daude jada eta guk langileen egoeraz kezka adierazi bai, baina gero beraien interesei begira dauden horiei zera eska-



### «Negoiazio kolektiboa bezalako bitartekoa baldintzatzeaz ari dira hizketan agintariak»

AINHOA ETXAIDE  
LABeko idazkari nagusia

tzen diegu: konpromisoa hartu ditzatela, Euskal Herriak behar duen aldaketa gauzatu dezan. Behingoz egin dezatela apustu serio bat, langileok behar dituen konponbide horiek aurkitzeko».

Eskaria egiteaz gain, LAB konpromiso berriak hartzeko prest dagoela ere aipatu zuen.

### Dozenaka lagun mobilizazioan

Dozenaka lagunek parte hartu zuten Beasaindik Ordiziara manifestazioan. Bidean besteak beste, *Euskal Herriak bizi eta lan, Enpleguaren defentsan kaleratzerik ez, Independentzia eta sozialismoa, Euskal presoak etxera eta AHTrik ez oihiak entzun ahal izan ziren*. Manifestazioaren bukaeran Legorretako Prodema enpresako langileak zihozaren greba mugagabea daudela zioen pankarta eskuetan zutela.

Ordiziako plazan bukatu zuten ibilbidea ekitaldi batekin. Ondoren poteo herrikoia egin zuten, trikitariak eta dultzainerok lagunduta eta 14:00ak aldera bazkaltzekoak ziren Ordiziako pilotalekuan. Aitor Sarriegi eta Igor Eguren bertsoariak parte hartzekoak ziren.

### LABeko lau kide identifikatuta

10:00ak aldera, LABeko lau kide Ez, ez, ez AHT-rik ez zioen pankarta jartzen ari zirela Ertzainek identifikatu egin zituzten. Ertzainen iritziz pankartaren leloa «ez zen egokia».

## ELA: «Lan erreformak prekarietate gehiago jasotzen ditu»

**Maiatzaren 1a »** ELAK manifestazioa Bilbon egin zuen. Eskualdekoak bertan izan ziren.

### ERREDAKZIOA

ELA sindikatuaren arabera 10.000 pertsonen baino gehiagok parte hartu zuten atzo Bilbon Maiatzaren Leheneko manifestazioan. Sindikatuaren eskualdeko kideak bertara deituak zeuden.

### Sindikalismoaren beharra

*Inoiz baino gehiago, sindikatuak lempaen burutu zen ekitaldian, Adolfo Muñozek, Txiki-k, sindikalismoaren beharra aldarrikatu zuen eta «lan erreformak sindikatuaren eremurik ahulenetara eraman nahi duela negoziazio kolektiboa» salatu zuen.*

Muñozek adierazi zuenez, «sindikalismoa ezin da isilik egon gertatzen ari denaren aurrean. Ekonomia hazten ari zenean gobernuek aberastasuna banatzerakoan kapitalaren alde egin zuten, pribatizazioak erabakiz, prekarietatea hedatuz eta opari fiskalak eginez. Ez geunden konforme, eta mobilizatu ginen. Orain hitz egiteko eskubidea dugu: ez dugu babestu euren egin dutena; inondik ere. Altranatiba argi asko, ozen aldarrikatu genuen; aberastasuna era justuagoan banatu behar zen. Gure eredu sindikalak ez zuen hazkunde garaiko espekulazioa bedeinkatu».

ELAko idazkari nagusiak Eusko Jaurlaritzaren jarrera ere salatu zuen, «euskal gehiengo sindikala ez du errespetatzen eta fanatismo hutsez jokatzeko» esanaz.

Manifestazioa goizeko 11:30ean abiatu zen Jesusen Bihotzaren Plazatik eta Plaza Biribilean amaitu zen.

Hitzaldia idazkari nagusiak, Adolfo Muñozek, eskaini zuen martxan bildutako enbabearekin. Ondoren asko eta asko bazkaltzera joan ziren, horretarako Barakaldoko BEC prest zuten sindikatuko kideek.

**hitza**  
TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**  
(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

XI. HITZA Argazki Lehiaketako finalisten lanen argitalpen data astebetez atzeratu dugu jasotako argazki mordo paperean publikatu ahal izateko. Maiatzaren 9an argitaratuko ditugu.

## Zortzi argazki finalisten zain



Oporraldiko argazkirik «kuttunen» aukeratu du Maiderrek; Zerauzten ateratakoa da, hain zuzen. MAIDER

### EREDAKZIOA

**G**uztira 77 argazki jasotako XI. HITZA Argazki Lehiaketan. Eskerririk asko Aste Santuko oporraldian ateratako argazkiak bidali dituzuen guztio!

Irudi guztiak TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN webgunean irudikatzen aurrerikoa dituzue, baina horretaz gain paperean ere ikusi ahal izango dituzue. Batek argitaratu ditugu jada, baina batek maiztaren bi harte argitaratuko ditugu. Horregatik atzeratu dugu zortzi argazki finalisten publikazio data.

Hasieran zortzi finalisten lanak gaur bertan argitaratuko genituela iragarri genuen, baina astebetez atzeratu dugu data eta, beraz, maiztaren 9ko egunkarian ikusi ahal izango dituzue.

Ondoren, harpidedunek sei egun izango dituzte zortzi finalisten irudi gehien gustatu zaien argazkia aukeratzeko. Bostzeta espak maiztaren 16etik 18ra izango da eta bi modu daude telefonoz, 943-65 56 95 zenbakira deituta, edo e-mailaz, tolosalde@tolosaldeko-hitza.info helbidera idatzita. Harpidedun kodea zehaztu beharko da, bestela, botak ez du balio izango. Irabazleek maiztaren 16ean argitaratuko ditugu.

### Sanak

Irabazleak bi pertsonentzako bi gauko egonaldia eskuratuko du Busturisko Iturbe landexean. Berez, gure sultantak Bermeoko Artetiketa landexean bi pertsonentzako bi gauko egonaldia irabaziko du eta hirugarrenak Berastegiko Larru gutunarekin bi gauko edo eskuratuko ditu. Era berean, parte-hartzaile eta boto emale guztien artean HITZAko produktuen zozketakuko ditugu.



Milagrosak Londreseko zihola hegazkinetik ateratako bildai da. MILAGROS GARCIA



Pariseko ilunabarri ateratako argazkia. ANNAURE AZCARRA



Burgosen ateratako argazkia bidali du Maialenek; «garai ezberdinetako irudiak» baten kontraste garbia erakusten da. Aintzineko martinduz berriuz jone dabileenaren adibide garbia. MAIALEN JURIO



«New Yorkeko Central Parkeko lakua atzealdetan erakiri altu ikusgarriak ikusten direla». TERESA ZUBILA



Larruunik eta Biarritzetik ikusten denarikin osatutako irudia. IVAR OTSO

**Lehiaketa.** Aipatu beraz XI. HITZA Argazki Lehiaketaren argazki guztiak TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN webgunean irudikatzen aurrerikoa dituzue. Guztiak 77 argazki jasotako eta hor izango dituzue ikusgai datozen hilaurretan. Era berean, gogoratu irabazleek irabazleak jasotako irudirik ez dituzue inkestak, lehiaketak eta Zuzena da HITZA saria, non zuzen irabazle edota eskertzak ere idatzi ahal dituzuen: [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)



«Londreseko senale hauei eskerrak eman behariko dizkiegu... hain argirik ez baldin gailu. A zuzen jardu. JOANETZ GARCIA



Argazkiaren Londresko Biggen-en, bertako autobusa eta Metro-ko barria. IGAZTEN DIA GAZZA. JAKOIN OZTELLA



«Munduan ateratako argazki ikusgarriak! Thocfaish ar la. LUIS CALVO



«Goztzen da! NYC-n jaten nizen bakoitzak. Munduan hiri fotografikoki bada, horixe da New York handia. Hau Brooklyn-eko zubian aterala dago, ilunabarrez... zoragarria!». TERESA ZUBILA



«Autoa Biarritzeko portuan izeneko argazkia bidali du Javierrek. IVAR OTSO



Nio bilain ateratako argazkia aukeratu du Mialak. ALA CORRAL



Alba Lozanok argazki hau bidali du XI. HITZA Argazki Lehiaketan parte hartzeko. ALBA LOZANO

# Aralarko bizilagunak itzuli dira

**Abaltzisketa** » Atzo ospatu zen Aralarko Larreen irekiera festa Larraitzen; eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, jende ugari bildu zen.

## ESTI EZEIZA

Modeloak bailiran, jendeak egin-dako pasarelatik barrena, Aralarko larreetarako bidea hartu zuten atzo goizean ehunka abereak. 1998tik hona, ohikoa den bezala festa giroan ospatu zen Larraitzen, larreen irekiera.

Zerua goibel esnatu zen atzo, euri langarra egin zuen hasiera batean, baina orduak aurrera egin ahala atertzen eta argitzen joan zen. Hamabiak jo eta minutu gutxira bota zuten larreak irekitzeko iragartzen zuen suziria. Jarraian, abeltzainak gidari zituztela, Aralarko larreetara sartu ziren abereak. Aurten guztira 20.000 buru inguru izango dira paraje horietan. 18.500 ardi, 750 behi eta beste 750 behor.

Irekieraren ondotik, Mendiko Behor eta Zaldien Gipuzkoako lehenengo lehiaketako sariak banatu zituzten. Zaldietan, txapeliduna, Aitzol Mendizabalena izan zen. Behorretan berriz, Patxi Egunez. Sariak banatzeaz Rafa Uribarren, Landa Garapeneko departamentuko diputatua; Asier Arrese, Mendiako zuzendaria; Jexux Mari Gorostidi, Abaltzisketako alkatea eta Jose Migel Santamaria, Enirio-Aralar Mankomunitateko lehendakaria arduratu ziren.

Abereak ikusteaz gain, hauek erosteko aukera ere izan zen atzo Larraitzen. Goiz osoan zehar, salgai egon ziren zenbait gunetan, asptoak, behiak, behorak, ahariak... Bestalde, larunbateroko Tolosako azokak hor bertan izan zuen ordezkoa. Izan ere, salmenta postu ugari ikusi ahalizan ziren Aralarko magalean. Artisau produktu ezberdinak, artilez egindakoak, saskiak, landutako harria... izan ziren. Musika eta bertsoak ere etziren

## » ZALDI ETA BEHOR TXAPELKETAKO SARIAK

### Gipuzkoako zaldi txapelidunak

- 1. Aitzol Mendizabal.
- 2. Vitoriano Urrestarazu.
- 3. Antonio Bolinaga.

### Gipuzkoako behor txapelidunak

- 1. Patxi Egunez.
- 2. Pedro Sukia.
- 3. Arantxa Ariztimuño.

### Sari bereziak

- **Zaldi errustikoena.** Ana Mari Otamendi.
- **Behor errustikoena.** Arantxa Eizmendi.

faltatu. Benta Zaharreko Mutiko Alaiaz ziren goizekoekitaldiei amaiera eman zietenak. Hauen aurretik, Mikel Mendizabal eta Bixente Gorostidi aritu ziren bertotan. Hauk, bertaratu zireneigonbita luzatu zieten, datozen hilabeteetan, Aralarko bizilagunei bisitan joateko.

### Azkarrena 'Aimendi'

Ikusmin handiena sortu zuen ekitaldia ardi moztailen arteko desafioa izan zen. Bi amezketar, Jesus Mari Goitia *Egoarre* eta Migel Mari Sagastume *Aimendi* aritu ziren lehian. Bakoitzak bost ardi moztu behar izan zion ilea antzinako erara, hau da guraiziek.

*Aimendi* izan zen azkarrena. Lana osatzeko 14 minutu eta 50 segundo behar izan zituen. Honek, mozketa gutxiago egin arren, *Egoarre* biziago aritu baitzen, bakoitzean ile gehiago kentzen zuen. Zenbaiten esanetan, hala ere, «lan txukunagoa egin zuen Goitiak».



Artisau lanak eta bertako produktuak erosteko aukera izan zen Aralarko magalean. E. EZEIZA



Bi amezketar, guraizeak eskuan hartuta, nor baino nor aritu ziren ardiei ilea moztzen. E. EZEIZA



Gipuzkoako Zaldi eta Behor Txapelketa jokatu zen estreinakoz, atzo goizean, Larraitzen. E. EZEIZA

**KAZETARIAK (Erref.: 2010-LPKAZ)**  
Berria egunkariak kazetariak behar ditu ordezkapenentarako lan poltsa osatzeko.


#### Eskatzen

- Kazetaritza ikasketak izatea
- Kazetari lanetan esperientzia izatea
- EGA edo baliokidea den euskara maila izatea

#### Kontuan hartuko da:

- Quark X Press programa erabiltzen jakitea
- Frantsesez eta ingelesez jakitea
- Gidatzeko baimena eta autoa izatea

Bidali curriculuma gizabaltzabideak@jarduna.net helbide elektronikora, erreferentzia zehaztuta, maiatzaren 10a baino lehen.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosako Alde Zaharrean, atiko argitxua. 50 m<sup>2</sup>, egoera onean. Prezioa 153.260 euro (25.500.000 pezeta). Interesatuek deitu 943 43 00 20 telefono zenbakira. Zuzeneko salmenta. fioa.

■ **Motorra.** KTM 125 sx. 1998koa, ondo zaindua. Interesatuek deitu 651 70 90 23ra.

# Eguraldiari aurre eginez ari dira jaiak ospatzen

**Jaiak** » Orexan eta Asteasuko Elizmendi auzoan Santa Kruz jaiak ospatzen ari dira asteburuan.

## ERREDAKZIOA

Santa Kruz jaiak ospatzen ari dira Orexan eta Asteasuko Elizmendi auzoan asteburuan. Festak bizitzeko ez da izaten ari nahi bezalako eguraldia, baina horrek ez die giroa zapuztu eskualdeko bi txoko horietan. Atzokoan, besteak beste, Orexan Tartaloren bisita izan zuten. Udaletxeko ganbaran herritarrek *Egizu lo, Tartalo* antzezlan

ikusi zuten. 50 lagun inguru, haur eta heldu, izan ziren emanaldian.

Asteasuko Elizmendi auzoan goizeratu duatloia euriarengatik atzeratu egin behar izan zuten. Arratsaldean, helduak musean ari zirela, haurrek Simon kanpandoretik nola jaisten zen ikusi zuten. Ondoren, adin guztietako haurrek duatloia egin zuten.

Gaurkorako Orexan gaztelu puzgarriak, bertso saio interesgarria eta afari merienda egin ondoren, erromeria izango dute. Elizmendiin meza, hamaiketako, toka txapelketa, trikitalariak, herri kirolak, buruhandiak eta Simonen igoreraren ondoren erromeria izango dute gau aldean.



Tartalo Orexako udaletxearen ganbara izan zen atzo. I. GARCIA



## Frontoia bete da txekor jaterako

**BALIARRAIN** » Txekor jatea egiteko herriko frontoia bete zen atzo Baliarrainen. Kanpoan eguraldia ez bazen oso atsegina ere, bazkarian giro ona izan zen nagusi. E. EZBZA



Asteasuko Elizmendi auzoko jaietan haurrentzako duatloiak arrakasta handia izaten du urtero. A. IMAZ

# Berdintasunaren Aldeko I. Astea bihar hasiko da

**Tolosa** » Berdinbide elkarteak antolatuta du eta hitzaldiak, film emanaldia, mahai-ingurua eta herri-ibilaldia egingo dituzte.

## ERREDAKZIOA

Berdinbidek, berdintasunerako eta genero indarkeriaren kontrako gizona zuzendutako elkarteak, hilaren 3tik 9ra Berdintasunaren Aldeko I. Astea antolatuta du Tolosan. Hitzaldiak, film emanaldia, mahai-ingurua eta *Bederatzi zubi Berdintasunaren alde* izeneko herri-ibilaldia antolatuta dituzte.

Bihar, beraz, izango da lehenengo ekitaldia. 20:00etan, Kultur Etxean, Mikel Otxotorena soziologo eta maskulinitasunean adituak *Los hombres ante la igualdad*

hitzaldia emango du. Etzi, Oier Alvarez Emakunderen Nahiko programako saioen dinamizatzaileak *Heziketa, berdintasunerako espazioa* hitzaldia emango du, 20:00etan eta Kultur Etxean. Asteazkenean beste hitzaldi bat izango da, leku eta ordu berdinean. Ritzar Bacete gizarte langile eta antropologoak *Corresponsabilidad de los hombres en el trabajo domestico y de cuidado* izenburua duena emango du.

Ostegunean, 19:15ean eta 21:45ean, Leidor aretoan George Cukor zuzendariaren *La costilla de Adan* filma ikusi ahaliko da. Arratsaldeko saioaren ondoren solasaldia egingo dute. Ostiralean egingo da mahai-ingurua, CCOO, ELA, LAB eta UGT sindikatuak ordezkariek, *Emakumea eta lan bitzita* gaiaren inguruan. Modera-

tzaile lanetan Garbiñe Biurrin epailea ariko da.

Asteari amaiera igandean emango zaio, *Bederatzi zubi Berdintasunaren alde* herri-ibilaldiarekin. Plaza Berrian elkartuko dira 11:00etan. Handik abiatuta, Udaltxistulari Bandaren laguntzarekin, Arrameleko zubitik pasa eta gainerako zubiak zeharkatuz, Kiroldegiko biribilguneko zubiraino joango dira. Handik, itzulerako bidea zubiak gurutzatuz egingo dute.

Ibilaldiaren bukaera plaza Berrian izango da eta bertan berdintasunaren aldeko manifestua irakurriko dute. Azken ekitaldi horretan ere izango dira Nahia Arreseigoren eta Matxin de la Sotilla bertsolariak, Udaberri Dantza Taldea eta Isidro Larrañaga Musika Eskola.

## Harpidedun egiten bazara aisialdirako bonu bat opari

Eroski Bidaiak eta Baskinbox etxean eskutik.

40 eskaintzatik gora aukeratzeko Euskal Herrian zehar.

Gozatu berria



Hotel bateko egonaldi bat, 2 lagunentzako bazkari bat edo abentura eta kirol ekitaldi bat izango duzu aukeran.

HARRERAKO  
943-30 43 45 • harpidetza@berria.info



Uztailaren 15ean

Tenerifeko astebeteko egonaldia zotz egingo dugu BERRIaren harpidedunen artean.

Eroski Bidaiak-en eskutik.



Orain, beste arrazoi bat BERRIaren harpidedun izateko.

EROSKI Bidaiak zuzen

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ berria



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Hitzaaldia

■ **Ikaztegieta.** Bizkarra eta artikulazioak nola zaindu gaia aztertuko du Javier Maria Susperregik. Hitzaaldia liburutegian izango da bihar, astelehena, 17:30ean.

### Deialdia

■ **Tolosa.** Sanjoanetan bordondantzeri bezala ateratzeko entseguak hilaren 7an hasiko dira eta ostegunero egingo dira Usabal Kiroldegian 20:30ean. Bestalde, helduen ikastaroak maiatza eta ekainean asteartean izango dira, 20:30etik 21:30era.

### Jaiak

■ **Asteasu, Elizmendi auzoan.** 11:30ean, meza Santa Kruz ermitan. Ondoren, hamaiketako, Toka Txapelketa eta trikitilariak: Laja eta Landakanda. 17:30ean, harri jasotzaileak eta aizkolaria: Telleria, Alkizalete eta Belauntzar. Ondoren, buruhandiak eta trikitilariak: Laja eta Landakanda. 21:00etan, Simonen igoera. Ondoren, Laja eta Landakandarekin erromeria.  
■ **Leitza.** Gaur Natur Bideen Eguna Geltokian. 09:30ean, izen-emaitea. 10:00etan, Leizalzarreko ibilbidea haurrentzat, 4 kilometro. 12:00etan, Geltokian luntxa. 12:30ean, pailazoak eta musika. Bertako produktuen zozketa bat ere izanen da.  
■ **Oresa.** Gaur, 17:30ean, gaztelu puzgarriak haurrentzako. 19:00etan, bertso saioa: Andoni Egaña, Iker Zubeldia, Amaia Agirre eta Sustrai Colina. 21:00etan, afari merienda. Ondoren, erromeria Iker eta Alaidere trikitilariekin. Bihar, hilak 3, 11:30ean, Diana herriko txistulariekin. 13:00etan, Apustua auzoen artean. 14:00etan, Pintxo lehiaketa eta txakolin dastaketa. 17:00etan, Bizikleta xelebreen karrera eta Toka

Txapelketa. Ondoren, Oilarraren igoera, herriko jaietako amaiera emateko.

■ **Zizurkil.** Andatza Eguna gaur. 11:00etan, Hamaiketako. 12:00etan, Herri Kirolak eta jokoak haur eta helduentzat. 14:00etan, bazkaria. Goizean zehar, erromeria ere egongo da trikitilari eta bertsolariekin.

### Zinema

■ **Tolosa.** Leidorren *Mugaldekoak* filma bihar, 20:30ean. Sarrera doan bada ere gonbidapenarekin joan behar da. Gonbidapena jasotzeko Leidor aretoko leihatilara joan behar da, zinema emanaldia dagoen garaian.

### » TELEBISTA

**28 Kanala**  
**08:30.** Zahar berri.  
**09:00.** Nonochan.  
**09:30.** Tolosaldean Gaur.  
**10:00.** Klik.  
**10:30.** On ein.  
**11:00.** Goierri bertso.  
**11:30.** Tolosaldean Gaur.  
**12:00.** Kultur zulo.  
**12:30.** Barre busa.  
**13:00.** (Jarraipena).  
**13:30.** Udaberriko feria.  
**14:00.** Haurrekin jolasean.  
**14:30.** Gipuzkoa kultura.  
**15:00.** Kiroleroak.  
**15:30.** Wazemank.  
**16:15.** Klipak.  
(\*Lau ordu errepikapenak)

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte C. Korreo Kalea, 20. 943 67 60 13.  
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.  
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

## A Agurrak



### Urte askoan osaba Gari!

Oparia gustatzen? Animo eta musutxo goxoak Ekiñe, Haimar eta Olatzen partez!  
Jo ta ke irabazi arte!



### Urte Askoan!

**Juan Bautista San Sebastian (Lizartza).**

Bihar 91 urte.  
Aupa aitona txapeldun.

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

agurrak

Mesedez,  
ekarri  
argazkia  
bi egun  
lehenago.

agurrak



### Zorionak Gari!

Maitasun osoz, muxu iraultzaile zein borrokalariak, eutsi goiari. Laister izango baikara Euskal Herri aske batean denok elkarrekin.



Datozen maiatzaren 6, 7, 8 eta 9an Ibarra ospatuko den **VII. Garagardo Festaren** baitan, gau bakoitzerako bi pertsonentzako **afaria** zozketatuko dugu gure harpidedun ordaintzaileen artean.

saria eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira goizeko 9:30etatik 13:00etara



hitza